



**KONTINGENTZIA PLANA
2020-2021 IKASTURTEA**

**ZAINDU
MAITE DUZUN
HORI!**



AURKIBIDEA

- 1. Sarrera**
- 2. Printzipio Nagusiak urteko planean**
- 3. Arduradunak eta zereginak**
- 4. Transmisio arriskuak murrizteko ekintzak**
- 5. Agertoki posibleak**
- 6. Higiene neurriak**
- 7. Zer egin gaixotasunaren sintomak antzemanaz gero**
- 8. Aurrez aurreko ikaskuntza garatzeko jarraibideak**
- 9. Emozioen kudeaketa**



1. SARRERA

Hezkuntza Sailak igorritako “Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra” dokumentuan oinarrituta burutu da ondorengo kontingentzia plana. 2020-2021 ikasturteko antolakuntzarako prebentzio neurriak eta jarduteko jarraibideak aipatzen dira bertan, hezkuntza-jarduera eta prestakuntza presentziala garatzeko orientabideak eskainiz. Osasun agintariek agindu berriak atera ahala protokolo honek aldaketak izan ditzake.

Dokumentu honen helburua, 2020-2021 ikasturterako jarraibide orokorrak ezartzea da, suertatu daitezkeen eszenatoki ezberdinei behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun eta osasun baldintzak bermatuz. Bertan, gure ikastolak COVID-19ren aurrean jarduteko estrategiak jasoko ditu, hezkuntza-jarduera garatzeko ikastolako antolaketarekin zerikusia duten esparruak zehaztuz.

Bizi dugun osasun krisi honetan, hezkuntza komunitateko kide guztien erantzukizuna ezinbestekotzat hartzen da kutsatze arriskuak gutxitu eta ikastolaren egunerokotasuna bermatu ahal izateko. Krisi horrek, zalantzarik gabe, guztion esfortzua eta konpromisoa eskatuko dituzten ondorioak ekarriko ditu.

2. PRINTZIOPIO NAGUSIAK URTEKO PLANEAN:

- ★ Lehenetasuna emango zaio HH eta LHko ikasleen (autonomia txikiagoa dutenen) aurrez aurreko irakaskuntzari.
- ★ Lehenetasuna emango zaio ikasle zaurgarrienen aurrez aurreko irakaskuntza eta arretari, bereziki Hezkuntza Premia Berezia dutenei.
- ★ Familien inplikazioa eta koordinazioa bultzatzea eta sendotzea.
- ★ Higiene eta prebentzio ohiturak lantzea eta sustatzea ikasleen artean, kutsatzeko arriskuak murrizteko xedearekin.
- ★ Alderdi emozionalak eta arreta pertsonalizatua lantzea.
- ★ Ikastolaren oinarrizko prestakuntza eta garapen teknologikoa ziurtatzea, online jarduera berme guztiekin garatu ahal izateko.
- ★ Ikasle, irakasle eta irakasle ez diren langileen gaitasun digitalak bultzatzea.
- ★ Ikasle guztiei sarbide digitala bermatzea.
- ★ Curriculumaren funtsezko osagaiak identifikatzea eta lehenestea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- ★ Plangintza hau Eusko Jaurlaritzak eta bestelako osasun arduradunek emandako arau eta aholkuetara egokitu eta horien arabera eguneratuko da.



3. ARDURADUNAK ETA ZEREGINAK:

Ikastolako arduradun nagusia administrari burua izango da. Bere zeregina izango da: Osasun Sailarekin harremana mantendu eta zuzendaritza taldearekin batera arduradunak izendatzea eta Ikastolen Elkarteko aholkulariarekin harremana mantentzea.

Ikasleen kasuan, osasun sailak esleitutako erreferentziako ESI-arekin harremanetan jarri beharko du, kasuren bat sortuz gero.

Langileen kasuan, Laneko Arriskuen Prebentzio zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, kasuren bat sortuz gero.

4. TRANSMISIO ARRISKUAK MURRIZTEKO EKINTZAK:

1. 1,5 metroko segurtasun-tartea mantentzea pertsonen artean.
2. Musukoak erabiltzea eta arnas-higienea. Musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da LH 1etik aurrera (LH 1 barne), nahiz eta 1,5 metroko segurtasun-tartea mantendu. Doministiku edo ez tul egitean, une horretan musukoa erabili ezean, garrantzitsua da erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo, bestela, ukondoa tolestea.
3. Eskuen higiena neurri garrantzitsua da, eskuek gainazaletik birusa transmititzeko duten gaitasuna dela eta. Urarekin eta xaboiarekin garbitzea lehenesten den arren, 3 urtetik gorakoek gel hidroalkoholkoa erabiliko dute. Gela bakoitzean egongo da gel hidroalkoholkoa eta irakaslea arduratuko da ikasleek honekin eskuak garbitu ditzaten behar adina aldiz (etxetik iritsi bezain laster, komunera joan aurretik eta ondoren, jolas ordura joan aurretik eta ondoren, etxera joan aurretik).
4. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena. Sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Horretarako, gela bakoitzean egongo da desinfekziorako beharrezkoa den materiala. Aldian-aldian eta egokiro aireztatzea ere oso faktore garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.
5. kontaktu kopurua murriztea. Bizikidetzat-taldeak mantentzen saiatuko gara uneoro.



5. AGERTOKI POSIBLEAK:

Osasun egoeraren arabera, hezkuntza jarduera hiru agertokietarako prestatu dugu:

1. agertokia:

Lehen normaltasun-agertoki bat, non datu epidemiologikoez eta osasun agintarien gomendioez aukera emango luketen aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera modu normalizatuan garatzeko.

Ikasturtea irailean hasiko da, mailakatuta, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan. Hezkuntza sailburuordeak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako 2020-2021 ikasturtea antolatzeari buruz emandako Ebazpenetan garatzen den bezala, aurrez aurreko hezkuntza-jardueran segurtasun eta osasun neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei eutsiz. Beste agertoki batzuetara igarotzea ahalbidetuko duten neurriak hartuko dira eta prestatuta egon beharko da horretarako. Ikasleak artatzea xede duten neurriak, ikasleen abiapuntua eta ikasturte akademikoaren jomuga aintzat hartuz.

Antolakuntza izaerako ohiturak edo arauak sortzea xede duten neurriak ere aplikatuko dira.

2. agertokia:

Tarteko bigarren jokaleku bat da agertoki hau, osasun-egoerak prebentzio-neurriak gomendatzen dituen, ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzera behartuko dituen, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematiko txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko. Bigarren agertokian etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsi beharko da, eta hainbat neurri hartu beharko dira irakaskuntzaren eta espazioen antolamenduari, distantziei, norberaren eta ingurunearen higienari eta abarri dagokienez.

3. agertokia:

Hirugarren eszenatokiak konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko ditu. Kasu honetan, osasun arloko agintariek ezarri dituzten neurrien arabera, antolakuntza eta eskolako langileen presentzia arautzeko neurriak hartuko dira, ikasleen hezkuntza-jarduerak ez dezan inolako etenik izan.



6. HIGIENE NEURRIAK:

Behar beharrezkoa da higie ne neurriak areagotzea, batez ere espazio komunetan (informatika gela, aretoa, irakasle gela, komunak...). Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa. Horretarako, beharrezko materiala eskura egongo da behar den lekuetan.

Era berean, espazioen aireztapena areagotuko da, barruko airea berritzen laguntzeko. Ahalik eta gehien aireztatu, eta ezinezkoa den kasuetan, gutxienez bi ordutik behin.

IKASLEEI dagokienez:

- ❖ LH 1etik gorako (LH 1 barne) ikasleek beren musukoa ekartzea eta erabiltzea derrigorrezkoa da.
- ❖ Nork bere paperezko mukizapiak ekarri beharko ditu.
- ❖ Norberak bere ur botila ekarri behar du etxetik, ezingo da partekatu. Zintzilikatzekoa badu askoz hobe.
- ❖ Beti mahai eta aulki berbera erabili beharko dute.
- ❖ LH 3tik gora txamarra eta motxilak bakoitzaren aulkian jarriko dira.
- ❖ Eskola garraioan ikasle guztiak erabiliko dute musukoa eta beti toki berean eseriko dira, ezinezkoa baita bizikidetzat-talde egonkorra mantentzea.
- ❖ Zaintzan ikasle guztiak musukoarekin egon beharko dute.
- ❖ Jangelara jaitsi aurretik eskuak garbitu behar dituzte eta musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Bazkal ondoren etxera joango diren haurrak plazako iparraldeko sarreran jasoko dira 13:30 edo 14:30ean.
- ❖ Garajea ez da bizikletarik utziko. Hauek jolas lekuan jarriko den eremuan utziko dira kandatuta. Patineteak garajea utziko dira.
- ❖ Gorputz Hezkuntzako saioetan, orokorrean, musukoa ez dute erabiliko.
- ❖ Aldagelak eta dutxak ezingo dira erabili. Gorputz hezkuntzarako, komeni da aldatzeko kamiseta bat eta toallatxo bat ekartzea.

LANGILEEI dagokienez:

- ❖ Langile guztiak derrigorrezkoa izango dute musukoaren erabilera, nahiz eta 1,5 metroko distantzia mantendu edo bizikidetzat-talde egonkorrean egon.
- ❖ Musuko motari dagokionez, gutxienez higienikoa izango da, laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuak bestelakorik agindu ezean.



7. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

a) Ikastolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintomen—edo ondoko sintoma hauetako batzuen- agerpena zaindu beharko dute:

- * 37 gradutik gorako sukarra
- * Eztul idorra
- * Eztarriko mina
- * Arnasa hartzeko zailtasuna
- * Beherakoa
- * Usaimenik edo dastamenik ez izatea.

Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren osasun zentzura deitu beharko dute. Ez dira bertaratuko ezta ere COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagun baten harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.

b) Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.

c) Gaitzaren sintomak antzemanaz gero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), ikastolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari. Familiak osasun-zentzura deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da "Familia gelan".

d) Gaitzaren sintomak ikastolako langileren batean agertuko balira, hau ikastola utzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.

e) Haur edo irakasleren batek Covid-19n positibo emanez gero, ESI-ak (Osakidetzako erreferentea) erabakitakoa egingo da.



8. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK

Aurreko atalean aipaturiko higiene-neurriez gain, beste neurri batzuk hartu beharko dira osasun arloko agintarien irizpideak betez.

- Musukoa derrigorrezkoa izango da langile eta LH 1etik gorako ikasle guztientzako (salbuespenak: sendagile ziurtagiria dutenak).
- Orokorrean, 1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean.
- Ikasle-talde egonkorak osatuko dira: bizikidetza-talde egonkorak. Talde horietako kideek elkarren artean sozializatu eta elkarrekin dezakete. Bizikidetza-talde egonkor horiek ikastetxeko beste talde batzuekiko elkarrekintza saihestu beharko dute, kontaktu kopurua ahalik eta gehien mugatuz.

ANTOLAKUNTZA

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Ikastola egunaren hasiera eta amaiera mailakatuak izango dira ikasleen adinaren arabera: pilaketak saihestu beharko dira eta markatutako eremuak errespetatu.
- Ahalegina egingo da ikasle-taldeek ikastetxean egiten dituzten joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko.



HAUR HEZKUNTZA

- Plazan bi sarrera erabiliko dira, HH3ko ikasleekin iparraldekoa eta HH4koekin hegoaldekoa.
- Eskola sarrerak 09:00etan eta 14:30ean izango dira eta eskola irteerak 12:15ean eta 16:30ean. Gurasoek ezingo dute barrura sartu eta atarian egongo dira zain segurtasun tarteak mantenduz erreferentziazko tutorea haurren bila joan arte. Ondoren, tutore edo irakasle arduradunarekin sarrera era mailakatuan egingo dute.

Ikasmaila	Sarrera ordua, lekua	Irteera ordua, lekua	Elkargunea
HH2	Sarrera malgua izango da. -Azken Portu: 1. solairukoak parkeko beheko atetik sartuko dira eta gainontzekoak sarrera nagusitik. -Ixpilla: sarrera nagusitik.	-Azken Portu: ohikoak eta bazkal ostekoak kanpora irtengo dira tutorearekin. Siesta ondorengoak irakasleak adierazi bezala. -Ixpilla: sarrera nagusitik.	
HH3	09:00 / 14:30 Plazako iparraldeko atea	12:15 / 16:30 Plazako iparraldeko atea	Plazako iparraldeko ate aurrean.
HH4	09:00 / 14:30 Plazako hegoaldeko atea	12:15 / 16:30 Plazako hegoaldeko atea	Plazako hegoaldeko ate aurrean.
HH5	09:00 / 14:30 Sarrera Nagusia	12:15 / 16:25 Sarrera Nagusia	Bertsolari plaza (tutorea peto laranjarekin).

Kontingentzia planaren arabera jarduerak higiene neurriei kasu eginda arautuko dira.

- Eskuen higiena areagotuko da urarekin eta xaboiarekin, gel hidroalkoholikoa saihestuz.
- Lo-kuluxketarako ohetxoan artean 2 metroko distantzia mantentzen saiatuko da, etzateko garaian ikasleak kontrako noranzkoan kokatuz.
- Pixoihalak aldatu ondoren, haurren aldaketa desinfectatu egin behako da.
- Beharrezkoak ez diren jostailuak eta objektuak kendu egingo dira.
- Talde egonkorak izateko ahalegina egingo da.
- Komunitateko garbiketa eta desinfectzioa areagotu egingo da.
- Ikastolako joan etorriak antolatu egingo dira.
- Irakasleek, ahal den neurrian, tenperatura altuan garbitutako laneko arropa erabiliko dute.
- Irakasleak ilea batuta eramango du eta eraztun, eskumuturreko edo zintzilikariorik ez erabiltzea gomendatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

- LH1 eta LH2ko ikasleek sarrera Ate Nagusitik izango dute. Bertsolari plazan bizikidetzat talde egonkor bakoitzarentzako eremuak markatuko dira eta erreferentziazko tutorearekin sartuko dira Ikastolara.
- LH3 eta LH4ko ikasleek sarrera irteera orduetan ez dute aldaketarik izango. LH3koak hegoaldeko sarreratik sartuko dira eta Jubilatuen egoitzaren aurrealdean bizikidetzat talde egonkor bakoitzarentzako eremuak markatuko dira. LH4koak mendebaldeko karakol eskailertatik parke aldeko iparraldeko sarreratik egingo dituzte sarrera-irteerak.
- LH5 eta LH6ko ikasleek sarrera orduak 08:45ean eta 14:15ean izango dituzte. LH 5A eta LH 5B mendebaldeko karakoleko eskailertatik (Bertsolari Plazan elkartuko dira) eta LH 5C, LH 5D eta LH 6. maila osoa hegoaldeko sarreratik (kirol gunean elkartuko dira). Irteerak 12:15ean eta 16:15ean izango dira sarreren leku beretik.

Bizikidetzat talde egonkor bakoitzarentzako eremuak markatuko dira eta erreferentziazko tutore edo irakaslearekin sartuko dira Ikastolara.

Ikasmaila	Sarrera ordua, lekua	Irteera ordua, lekua	Elkargunea
LH1	09:05 / 14:35 Sarrera Nagusia	12:25 / 16:35 Sarrera Nagusia	Bertsolari plaza (tutorea peto gorriarekin)
LH2	09:10 / 14:40 Sarrera Nagusia	12:30 / 16:40 Sarrera Nagusia	Bertsolari plaza (tutorea peto urdinarekin)
LH3	09:00 / 14:30 Hegoaldeko sarrera	12:30 / 16:30 Hegoaldeko sarrera	Kirol gunea (tutorea peto horiarekin)
LH4	09:00 / 14:30 Mendebaldeko karakol eskailera	12:30 / 16:30 Mendebaldeko karakol eskailera	Auzo elkartearen aurrean (tutorea peto berdearekin)
LH5	08:45 / 14:15 Mendebaldeko karakoleko eskailera (A eta B taldeak) Hegoaldeko sarrera (C eta D taldeak)	12:15 / 16:15 Mendebaldeko karakoleko eskailera (A eta B taldeak) Hegoaldeko sarrera (C eta D taldeak)	LH 5A eta B auzo elkartearen aurrean. LH 5C eta D kirol gunean (tutorea peto laranjaarekin).
LH6	08:45 / 14:15 Hegoaldeko sarrera	12:15 / 16:15 Hegoaldeko sarrera	Kirol gunean (tutorea peto txuriarekin)



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- Jardunaldi jarraia egingo da, goizeko 08:20tatik 14:40ra arte.
- Sarrera-irteerek DBHko lau mailetan ordutegi berdina izango dute
- Mendebaldean kokatutako geletako ikasleek bertako karakol eskaileretatik egingo dituzte sarrera-irteerak eta gainontzekoek hegoaldeko sarreratik.

Bizikidetza talde egonkor bakoitzarentzako eremuak markatuko dira eta erreferentziako tutore edo irakaslearekin sartuko dira Ikastolara.

Ikasmaila	Sarrera ordua, lekua	Irteera ordua, lekua	Elkargunea
DBH 1 DBH2A-2B	08:20 Mendebaldeko karakoleko eskailerak	14:40 Mendebaldeko karakoleko eskailerak	DBH 1: auzo elkartearen aurrean (tutorea peto gorriarekin). DBH 2: Bertsolari plaza (tutorea peto urdinarekin).
DBH 2C DBH3 DBH4	08:20 Hegoaldeko sarrera (DBH 2C Bertsolari plazan elkartuko da eta gainontzekoak kirol gunean)	14:40 Hegoaldeko sarrera	DBH 3 eta 4: kirol gunean (DBH 3ko tutorea peto horiarekin eta DBH 4koa berderekin)..

JOLAS-GARAIK

Neurriak hartu dira eremuak bizikidetza unitate bakoitzari esleituz eta jolas-orduak berrantolatu dira mailakatuak bihurtuz. Hona hemen antolatu den plangintza:

- ❖ Euria asko egiten duenean gelan geldituko dira tutorea bertan delarik. Hala ere, euri asko egiten ez duenean, kanpo espazioaren erabilera lehenesten denez, garaiko arropa eta oinetako egokiak ekartzea komeni da.
- ❖ Orokorrean, astero gunez aldatzen joango dira. Txikienen kasuan txandakatzea egunerokoa izango da. Gune bakoitzean bizikidetzako talde egonkorra egon behar du.
- ❖ DBH-koek, bere jolas gunera joateko hego edo ipar aldeko eskailerak erabiliko dituzte, gunearen kokapenaren arabera.
- ❖ DBH-koek, idazkaritza gunean ezin dute egon ezta Bertsolari plazan ere.




HH-LH



1 PLAZA AURREA "A"	5 PARKEA	9 PLAZA GORRIA "B"	13 ESKUBALOIA "A2"	17 SASKI "B"
2 PLAZA AURREA "B"	6 ANTONION DENDA	10 FRONTOIA	14 ESKUBALOIA "B1"	18 BERTSOLARI PLZ
3 HAURREN BASOA	7 GRADA AURREA	11 IDAZKARITZA	15 ESKUBALOIA "B2"	19 PEDRO-ENEA
4 ENBORRAK	8 PLAZA GORRIA "A"	12 ESKUBALOI A "A1"	16 SASKI "A"	



DBH





ESPAZIOEN ERABILERA

Beharrezkoa denean, eskuragarri ditugun espazio guztiei (liburutegia, laborategia, aretoa, erabilera anitzeko gelak, ingeleseko gela, ...) ahalik eta etekinik handiena aterako diegu.

Ikastola kanpoaldeko kirol eremuko eta frontoi aldeko ateak ordutegi honen baitan ireki eta itxiko dira:

- Goizean: ireki 08:10ean eta itxi 09:30ean.
- Eguerdian: ireki 12:10ean eta itxi 12:40ean.
- Bazkalostean: ireki 14:10ean eta itxi 14:50ean.
- Arratsaldean: ireki 16:10ean eta itxi 17:00etan.

Ikastolako eremu guztiak 17:00etan itxiko direnez, ordu horretatik aurrera ezingo dira erabili.

ZERBITZUAK

Zaintza:

- ❖ Plazako iparraldeko sarreratik sartu eta lehenengo dagoen gela erabiliko da.
- ❖ Bi begirale egongo dira. Plazan dagoen begiraleak egingo dio harrera iristen den haurrari.
- ❖ Musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da.
- ❖ Gelara joateko ordua iristean, HH 3, 4 eta 5eko ikasleak begirale batek eramango ditu dagokien geletara; eta LH 1etik gorakoak dagokien eremura eramango ditu besteak.

Garraioa:

- ❖ Autobusaren zain egon bitartean, mesedez, beharrezkoak diren distantziak gorde.
- ❖ Ikasle guztiek musukoa derrigorrez erabili beharko dute
- ❖ Beti leku berean eseriko dira haurrak.
- ❖ HH3, 4 eta 5 urtekoak autobuseko arduradunarekin joango dira beraien geletara. LH1etik gorakoak sarrerarako dagokien gunera joango dira.

Jangela:

- ❖ Jangelan sartu aurretik, eskuak garbituko dituzte, horretarako begiraleek lagunduko diete.
- ❖ Geletatik jangelara joateko musukoa jantzita joan beharko dute.
- ❖ Bazkal ondoren musukoa derrigorrezkoa izango dute.
- ❖ Bazkal ondoren, talde bakoitza dagokion gunera joango da begiralearekin. Eguraldi txarra eginez gero, talde bakoitza bere gelara joango da.
- ❖ HH 3koak deskantsu gelara joango direnez, haur bakoitzak bere mantatxoa, maindire txiki bat, panpina edo txupetea (beharraren arabera) ekarri beharko du



zintzilikatze moduko oihalezko poltsatxo batean. Ostiralero etxera eramango dute garbitzeko.

- ❖ LH5, LH6 eta DBHko ikasleek, garajeko sarrera erabiliko dute jangelara sartzeko. Jangelara joan aurretik eskuak garbitu beharko dituzte.
- ❖ Gainontzeko mailetako ikasleak, plazatik sartuko dira, betiko atetik.
- ❖ Haur bakoitza beti leku berean eseriko da, horretarako bakoitzaren eserlekua identifikatuta egongo da pegatina batekin.
- ❖ Gelaka eseriko dira. Gelakide ezberdinetako mahaien artean distantziak mantenduko dira.
- ❖ KLASEAK GOIZEZ BAKARRIK direnean:
 - HH3 eta HH4ko ikasleak jasotzeko, hiru ordutegi egongo dira plazako iparraldeko atean: 13:30, 14:00 ala 14:30.
 - Gainerako ikasleek ere ordutegi berdinak errespetatu beharko dituzte, eta irteera Ikastolako ate nagusitik izango da.
- ❖ IKASTURTEAN ZEHAR, bazkal ostean etxera joan behar duten HH3 eta HH4ko ikasleak jasotzeko, plazako iparraldeko atean, berdin mantenduko da, hau da 13.30 ala 14:30etan.
- ❖ IKASTURTEAN ZEHAR, gainontzeko mailetako ikasleek, bazkal ostean Ikastolako eremutik ateratzeko baimena sinatuta ekarri beharko dute eta 13:10etan BAKARRIK irten ahalko dute. Arratsaldean maila bakoitzari dagokion ordutegian sartuko dira.

Garajea:

- ❖ Bizikletak ez dira garajeen gordeko.
- ❖ Bizikletak jolas eremuan horretarako egokituko den lekuan jarriko dira, maila bakoitzak berari dagokion lekuan.
- ❖ Patineteak garajeen sartuko dira.
- ❖ EZINBESTEKOIA IZANGO DA BIZIKLETA ETA PATINETEAK KANDATZEA.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Covid-19ak sortu duen egoera berri honen garapenaren arabera eta Osakidetza nahiz Hezkuntza Sailak dioenaren arabera, oraingo ez ditugu eskolaz kanpoko ekintzak martxan jarriko. Aurrerago aztertuko da, ekintza hauek abiaraztearen egokitasuna.

Idazkaritza:

- ❖ Idazkaritzan musukoarekin sartu beharko da eta aldiko pertsona bakar bat.
- ❖ Komunikazioa ahal den neurrian telefonoz edo emailaz egitea gomendatzen da zarautz@ikastola.eus // zerbitzuak@zaraukoikastola.net

Zaintza, garraio eta jangela idazkaritza zerbitzuak, uneko osasun neurriak jarraituz, eskainiko dira.



9. EMOZIOEN KUDEAKETA

Lehen astean, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea bultzatuko denez, aurreko ikasturtean izandako tutorearekin hasiko dute ikasle guztiek ikasturtea.

Horretaz gain, ikasleek izandako bizipenak partekatuko dira elkarlanean izan ditzaketen kezka eta beldurrei aurre egiten laguntzeko. Horien kudeaketa egokirako bitartekoak eskainiko dira eta bigarren eta hirugarren agertokietarako prestakuntza jasoko dute.

***Informazio hau etengabe eguneratuko da egoerak horrela eskatzen badu. (Aldaketak egiten diren bakoitzeko jakinaraziko zaizue)**

ZAINDU
MAITE DUZUN
HORI!